



CAMARA DE GIPUZKOA  
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

**Indar**  
An *Ingeteam* brand

*Prensa Oharra*

---

## HISPANOTURKIAR MERKATARITZA GANBERAK GIPUZKOAN EGIN DU BERE BATZARRA

**Donostia –2019ko ekainak 21** - Hispanoturkiar merkataritza ganberak bere ohiko batzarra Donostian kokatuta dagoen Gipuzkoako Bazkundean egin du Indar enpresarengandik babestuta. Indar, Hispanoturkiar ganberaren sortzailea izan da eta herrialdeak 1,9 GW energia hidroelektrikoa du instalatuta bertan.

Hispanoturkiar Merkataritza eta Industria Ganbera Ofiziala Madrilen inauguratua izan zen ofizialki 2011 urtean honako helburuarekin: erakunde ofizial bat sortu bi herrialdeen arteko harremanak estutzeko eta harreman horiek sektore guztietan sendotzeko. Sortu zenetik eta bere ibilbide guztiari esker Hispanoturkiar ganberak erreferente izatea lortu du bi herrialdeetan interesa duten enpresarien artean, euren aktibitatearako laguntza eta aholkua emanaz. Topaketa, hitzaldi, tailer eta *networking* ekitaldien bitartez ganberak esperientzien, nahien eta kontaktuen partekatzea sustatzea bilatzen du, Espainia eta Turkiaren arteko harremanak handitzen laguntzeko.

Ganbera honen Zuzendaritza Batzordeak Espainiako eta Turkiako enpresa aipagarriak biltzen ditu bere baitan, hala nola, Amadeus, BBVA, Banco Sabadell, CaixaBank, Mapfre, Befesa, Indar, DLA Piper, Roca, Turkiako Errepublikako Presidentetzaren Inbertsioen bulegoa eta Turkish Airlines, Noksel España, Zumosol, Vestel Iberia eta AY Advice & Consultancy. Horrez gain, ganbera hau erakunde ofizial guztiengatik babestuta dago, eta ohorezko bazkide gisa ditu Turkiako Espainiako Enbaxada eta Espainiako Turkiako Enbaxada.

Gure taldeak esperientzia handia du enpresariak behar dituzten kontu guztietan laguntzeko eta aholkua emateko. Horrez gain, ganbera hau Europako Merkataritza Ganberen parte da eta Espainian Ganbera Lagun bezala izendatuta dago. Europako Merkataritza Ganberak 20 merkataritza ganberen laguntza jasotzen dute eta hauek guztiek 7.000 enpresa baino gehiago, 1,3 miloi langile eta 300 mila miloi euroko negozio-kopurua baino gehiago ordezkatzen dute. Gaur egun, harrotasunez betetzen gaitu 110 bazkide baino gehiagoren laguntza estua jasotzen dugula esateak [www.camarahispano-turca.org/socios/](http://www.camarahispano-turca.org/socios/)

**Informazio gehiago:**

Pedro Garciandia, Director de Desarrollo de Negocio & Public Affairs  
[pedro.garciandia@indar.ingetteam.com](mailto:pedro.garciandia@indar.ingetteam.com)

Irune Bengoetxea  
[ibengoetxea@camaragipuzkoa.com](mailto:ibengoetxea@camaragipuzkoa.com)  
943 000 310 / 688884347